

PRAKTIKA 7.9: “Gorilas en la niebla” filmaren Cineforuma

Michael Apted-en “Gorilas en la niebla” (Gorillas in the mist, 1988) ikusi ondoren, berari buruzko eztabaida egin:

1. Filmaren ezaugarri teknikoak: kalitatea, gaurkotasuna, interesa,...
2. Ikerketa edo ebaluazio kualitatiboarekin zerikusia duten eszenak azalerazi. Bertan azaldutako ezaugarriak komentatu.

Ondoko alderdi hauek komentatu:

1. Laguntzailea (*informatzaile nagusia*) aukeratu behar duenean, zergatik aukeratzen du Sembagare?
2. Nola antolatzen du datu-bilketa?
3. Arazorik ba al du landara sarbidea lortzeko?
4. Zein estrategiak erabiltzen ditu gorilen konfiantza lortzeko?
5. Gorilekin elkarren arteko eragina izateko, zer egiten du?
6. Behaketa partehartzaileari buruz hitz egin al daiteke?
7. Ikerketaren uneren batean erabiltzen al dira teknika kuantitatiboak? Noiz? Zeintzuk?
8. Zure ustez, denbora pasatzen denean, protagonistak ez al du gehiegizko enpatia lortzen gorilekin? Honek eragin positiboa ala negatiboa izan dezake? Ikuspegi objektiboa galdu al dezake?
9. Bukaera aldera, protagonistak esaten du ezin duela landa utzi beti zerbait berria ikusten duelako. Horren arabera informazio-asetasuna lortu duela esan al daiteke?
10. Zein bitarteko erabiltzen dira gorilen bizimodua jasotzeko?